

Karitateko Alabak

125 urte hernaniko herriaren zerbitzura

Laura Pacheco



1883. urtean (1883-XI-2 bilkura agiria) eta Ahizpa Bisitaria Sor Casimira Astizekin hainbat kudeaketa egin ondoren, Mariano Joaquin Maller zuzendariak eta Ongintzako Biltzarreko lehendakaria zen Martin Fernandez jaunekin kontratu oso esanguratsua sinatu zen. Alegia, handik aurrera **Ongintza Etxea** zeritzon ospitalea Karitateko Alaben kargu egotera pasa zen.

Ospitale hau 1868. urtean eraiki zen ordu arte Zinko-Enea eta Txirrita kalearen artean zegoen **Hernaniko Herriko Ospitale Santua** ordezkatzeko

asmoarekin, azken hau 335 urte baino gehiago iraun zuelarik, 1530. urtean sortu baitzen.

1884 urteko apirilaren 29an iritsi ziren **Hernanira lehenengo Karitateko alabak**. Hauek umezurtz, agure eta gaixoei laguntza eskainiz hasi zuten beren lana eta poliki-poliki laguntza hau eskatzen zutenen kopurua handitu zen, garai hartako Ongintzan 50 agure edukitzera iritsi zirelarik.

Karitateko Alabek jaso zituzten umezurtzen artean *Luis Telleria* hernania-

Luis Telleria, hain maitatua izan den herriari Sor María Luisa Iraragorriekin.



rra dugu eta berarekin solasaldi bat eduki ondoren, garai hartako anekdota eta kontutxo ugari jakin ahal izan ditugu:

“Cuando yo entré eran momentos difíciles, era la posguerra y había mucha hambre, fue en el 54 aproximadamente. Sor Trinidad y Sor María Ignacia entraron aquel mismo año conmigo. Sor María Pilar Loiarde era de Hernani y también entró conmigo, aunque se fue de novicia”.

Kontatu zizkigun hainbat pasarteren artean hauxe da gehien gustatu zaiguna:

“Había un manzanal, y después de ir a gatas para que no me vieran ellas y volver a gatas casi oscureciendo, cogí manzanas y se las puse a los ancianos en las mesillas. No caí en la cuenta que los ancianos no tenían dentadura y Sor Trinidad, que es la que nos cuidaba a mí y a mis hermanos, olió las manzanas. Me dijo:

— Luis, ¡cómo huele a manzanas aquí!

— No sé, las habrá traído alguien.

— ¿Cómo que las habrá traído alguien? Pues yo no he visto a nadie que haya traído manzanas.

La cosa es que abre los cajones de las mesillas que tenían pintadas de blanca, y ve allí todas las manzanas podridas.

— Luis, no vuelvas hacer esto porque la superiora nos manda a todos de aquí”.

Umezurtz eta agureen zaintzaz gain, egunean zehar sorostegi bat zuten. Bertan, ospitaleratu gabeko gaixoei laguntza medikoa eta familiarra eskaintzen zizkieten, hortik 60 bat pertsona pasatzen zirelarik.

Karitateko Alabek ordu arte eskaintzen zituzten laguntza eta zerbitzuez gain, zerbitzu berri baten beharraz konturatu ziren eta modu horretan, **1890**.





urtean alfabetizazio klaseak emateari ekin zioten, modu honetan **eskola sortu** zen. Hasiera batean baliabide eskasak zituzten baina, ahalegin handiz, gai ziren klaseak gauetan eta igandeetan ere eskaintzeko.

Eskolaren ildoan jarraituz, **1895. urtean** "Familiako Gurasoen Elkarte" sortu zen, bertako Batzordeko lehendakaria Juan Manuel Soroa jauna izan zelarik. Batzorde honek Udaletxeari eskaera bat egin zion: Ongintzatik gertu zegoen lur-eremuaren salmenta egitea modu honetan irakaskuntzarako erabili ahal izateko.

Udaletxeak eskaera jaso zuen eta baita onartu ere, baina azpimarrapen txiki batekin: lur-eremuak 292 metro karratutan zifratu zituen eta Karitateko Alabek lur-eremua irakaskuntzarako erabiltzeko uzten zioten momentuan, berau Udaletxearen jabetzara pasako litzateke berriro.

Erabaki ostean, lur horietan (gaur egun Milagrosako parkina delakoa), **bi eraikuntza kokatu ziren**. Bata, Sor Vicenta Monparterrek zeraman Haur Hezkuntzako eraikina eta bestea, neskatoen Lehen Hezkuntzarako erabiltzen zena.

Irakaskuntzara eskaintzen ziren Kalitateko Alabek 2 pezeta eta 50 zentimoko soldata jasotzen zuten hilero, horietatik 2 pezeta Ongintzara ekartzen zituzten mantenu eta alojamendua ordaintze-

ko. Aldiz, Agureen Etxean eskaintzen zituzten zerbitzuen ordainetan, baratza eta ukuilu txiki bat erabiltzeko aukera zutelarik.

Zerbitzu hauek guztiak eskaintzen zituzten mojen artean, bazeuden hernaniarrak ere. Hala, Luis Telleriaren esanetan: "*Sí, había bastantes monjas hernaniarras: Sor María Miner, Sor María Gorrotxategi, Sor María Pilar Loiarte, Sor Lucía Loiarte, Sor Carmen Zabaleta, ésta última solía venir sólo los veranos pues estaba destinada en Madrid*"

Urteak aurrera, **1960. urte inguruan** Haur Eskola bat sortu zuen INASEk (Instituto Nacional de Asistencia Social), "**Zikuñagako Amako Haurtzaindegia**" izenez ezagutzen zena. Bertako zuzendaria Sor M^a Luisa Díez Villarejo izan zen eta bertan 60 haurrentzako lekua zegoen, eskaintzen zen zerbitzu hau guztiz dohainik zelarik, beti ere herritarren eta beste instituzioen laguntza jasota: "*Teníamos extraordinarios muy buenos de gente que se casaba, me acuerdo que el que no faltaba a darnos el extraordinario todos los años era la Caja Municipal de San Sebastián. Estos nos daban una comida extraordinaria en Navidad y también el día de Santa María Magdalena, San Vicente de Paul, la Milagrosa y Semana Santa*" (gaur egun ere, Karitateko Alabentzako hain bereziak diren egun hauek, ikastetxeko langile, irakasle eta ikasleekin ospatzen baitituzte).

Haurtzaindegia hau egokiro funtzionatzen ibili zen 1990 urtera arte, INASEk itxi zuen arte: "*Aunque había un viejo gallinero, Sor María Gorrotxategi en otra parcela hizo un gallinero nuevo más grande con un montón de gallinas. Luego, donde estaba ese gallinero se hizo la guardería en el 62. Y ya cuando se hizo la guardería, un año después más o menos es cuando me fui yo*".

Sortutako eskaria zela medio, **1962an** eraikuntza berri baten beharra ikusi zuten eta horrela, **eraikin berri bat egin zuten** Txantxillako Futbol Zelaia zenaren hegoaldetik inguratzen zuen bidean bertan. Lur-eremu horiek Sor María Gorrotxategi Karitateko Alaba hernaniarren jabetzakoak ziren eta, hasiera batean, bost solairuko eraikina egin zuten bertan, Donostiako Institutuko ordezkaritza moduan lan egin zuelarik urte askotan zehar. Aurrerago, herriko beharrei aurre egiteko, beste eraikin bat egin zuten bestearen jarraipen moduan, honetan ezarri zelarik eskola taldea.

Karitateko alaben eskolak **garai edo aro desberdinak bizi ditu**, beti ere Irakaskuntzaren Berrikuntzen errekeimenduei egokituz. Hasiera batean eskola honetan Haur **Lehen Hezkuntzako etapak aurkitu** zitezkeen baina aurrerago, **50eko hamarkadan** Oinarritzko Batxilerra ezarri zuten eta **60. hamarkadan** Donostiako institutuko ordezkari izan zen. Aurrerago, **70eko hamarkadan** Lanbide Heziketako Le-



hen Graduako adar administratibo eta komertzialak ezartzeko baimena lortu zuten. **Gaur egun**, 6 hilabetetik hasi eta 16 urte bitarteko heziketa eskaintzen du (Haurtzaindegia, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza) eta "Erizain Laguntzaile" deritzon Heziketa Zikloa ere aurki dezakegu bertan.

Garai batean, Karitateko Alaben komunitateak herriko ekintzetan parte hartzeko ahalegina egiten zuen eta hala irakur daiteke Luis Telleriaren hitzetan: *"Cuando el Domund, el hermano de Sor Juana la cocinera, prestaba el camión para hacer la carroza y yo adornaba la carroza con pintura, guirnaldas... Y según de qué trataba, nos vestíamos de una cosa o de otra. Un año nos vistieron de cura y de monaguillo y en la carroza se veía cómo dábamos misa, con altar y todo. Detrás iban las cinco razas: África, Oceanía... ¡muy bonito!"*.

Gaur egun ere, eskolakook, komunitate moduan, parte hartzen dugu herriko ekintzetan: Gabon erronda, Inauteriak...

1975eko urtarrilaren 17an komunitatea bereizi egin zuten. Handik aurrera bi arlotan egingo zuten lan: batetik, irakaskuntzan eta bestetik, agureen zaintzan, zerbitzu-antolakuntza hobetzeko asmoz.

ZAHARREN EGOITZA. Jasotako zaintza eta kontuez gain, Ezkiaga Pasealekua-

ren ondoan eta Aita Larramendi kalearen hasieran kokatutako Santa Maria Magdalena Egoitzaren (Ongintza Etxea delakoa) antzinatasuna begi bistan zegoen eta nabariak ziren bertako agureei eskaintzen zitzaizen zerbitzua modu egokian aurrera eramateko baliabideak urriak zirela.

Hala, gure elkarrizketatuari galdetu genion bertako baliabideez, honakoa erantzun zigun: *"Había una sala grande y en aquella sala grande, los abuelos dormían todos juntos a un lado y los niños dormíamos en el otro lado. Pero no había separación de nada, ni tapias ni nada, una bombilla en medio y ya está"*.

Horrela eta ikusirik gaur egungo gizarteak egiten duen aurrerabide eta

garapen aurrerakoi izugarria, jakina da bizitzak bira handia eman duela eta honi aurre egiteko eskaintzen diren zerbitzuak asko aldatu dira. Alegia, babes-etxe eta Ongintza Etxeak gaur egungo Egoitza moderno eta erabilera desberdinekoengatik aldatu dira. Horrela sortu delarik ere garai hauetan Hernanin dugu Santa Maria Magdalena Zaharren Egoitza.

Badira urteak ahotsak entzuten zirenak egoitza berri bat egitearen alde, egoitza modernoago eta eraginkorrago baten alde. Kemen eta konstantzia handiz, baita lortu ere, hain zuzen ere aurreko egoitzaren jarraian kokatu zelaririk lehenengo harria 1981ean eta 1983an guztiz bukatu ziren eraikuntza lanak.





Eraikuntza berri hau Hernaniko Ongintza Patronatuari txertaturik zegoen arren, lankidetzaz hitzarmen bat zuen Karitateko Alabekin. Horrela, 1998an bost ahizpa zeuden lanean Zaharren Egoitzan, baina 2003an joan zen azkeneko Karitateko Alaba zaharren egoitzatik.

Nahiz eta Zaharren Egoitzan mojarik ez egon eta eskolan garai batean baina askoz ere gutxiago bizi, Luis Telleriari beraiekin harremana jarraitzen zuen galdetu genion: *"Sí, siempre he seguido teniendo relación. Cualquier cosa que tenían siempre me llamaban. Era allí como un niño grande: Luis hay que pintar esto, Luis hay que hacer lo otro... Ahora mismo me suelen llamar para restaurar la Milagrosa que está en la entrada, que es la que antes estaba en la capilla".*

KARITATEKO ALABAK. Bizipen asko eta oso desberdinak izan zituen Luis Telleriak Karitateko Alabekin bizi izan zen garaian. Lan asko egin zuen beraiekin egon zen bitartean baina gauza asko ere ikasi omen zituen: *"Con Sor Gregoria que era enfermera, yo*

aprendí a poner inyecciones. También me enseñaron otras muchas cosas, a pintar, a bordar, a zurcir, hacía las camas, abrillantaba los suelos... Y los recados los hacía encantado. La cocina daba al patio y en ese patio jugábamos a pelota. No teníamos pelota pero la hacíamos con un papel o lo que sea y así jugábamos mis hermanos y yo. Cuando veíamos que Sor Juana estaba en la cocina, echábamos la pelota dentro y ella se enfadaba un montón. Y así, le preguntábamos si tenía recados para hacer y si decía que sí, pues allí íbamos. Nos mandaba traer chistorra de la carnicería o cosas así y a la vuelta, ya nos tenía preparado un cacho de pan con nata. ¡Más contentos!"

Karitateko Alaba askoren izenak gogoan ditu eta haien bizitzari buruzko pasarteak ere kontatu zituzkigun. Esate baterako, Sor Juana delako mojarik buruz gauza ugari kontatu zigun: *"Sor Juana era una cocinera muy buena y hacía una labor que en aquella época se agradecía mucho. Con sus faltas de ortografía y todo, escribía las recetas y luego se las enseñaba a las muje-*

res de Hernani. Las llevaba donde se hacía el teatro, creo que los jueves, y cocinaba delante de las mujeres, daba clases de cocina.

Hay una anécdota muy buena, venían las inglesas de colonias a dormir al parador, a pasar un mes. Sor Juana y las monjas prepararon unas cazuelas de chipirones en su tinta. Cuando les pusieron las cazuelas allí en las mesas, vieron aquello negro y no comían. Y Sor Juana con un disgusto... Al final empezaron a probar y les gusto mucho".

Beste pasarte oso bitxi bat ere kontatu zigun, oraingoan protagonista Sor Lourdes izeneko ahizpa bat zelarik: *"Me acuerdo de Sor Lourdes, que era de Vizcaya, que estuvo con Fidel Castro, cuidaba a su madre. Ella se vino de Cuba cuando la revolución del Che. Cuando mataron al Che, le dijo Fidel que si quería seguir allí tenía que dejar los hábitos y vestir normal. Pero ella se volvió y vino a parar aquí. Esta monja me mandaba a calladas, que le echara las cartas para la familia de Fidel".*



Egungo elkartea. Goiko ilaran, ezkerretik eskubira: Sor Soledad, Sor Ana, Sor Rufina, Sor Alize, Sor Lourdes, Sor M. Paz, Sor M. Jesús, Sor M. Luisa eta Sor Julia. Behekoan: Sor Adela, Sor Leonor, Sor Esther, Sor M. Angeles eta Sor Camino.

Azaldu nahi dugu gaur egun ere Karitateko Alabek eskaintzen dutela bere zerbitzua Hernanin, ikastetxean hain zuzen. Elkartean, 14 ahizpek mantentzen dute pizturik San Bizente de Paulen sua. Batetik, eskolan bertan era askotako zerbitzuak gauzatzen dituzte (haurtzaindegian, idazkaritzan, atarian, pastoraltzan, balore-hezkuntzan, klaseak ematen...) eta, bestetik, herrian bertan beste eliza-ekintzarekin lotutako jarduerak hartzen dituzte kontuan (Caritas, espetxe-pastoraltza, gazte-eta haur- katekesia, Ama Mirariaren pastoraltza, bisitak...).

Azkenean, gogoratu nahi ditugu gurekin hainbat eta hainbat urte egon zi-

renak eta orain beste toki batean daudenak, Sor Maria Luisa Díez, adibidez eta nola ez, Jainkoaren Etxean betiko atsedena hartu dutenak, Sor Maria Luisa Iraragorri eta Sor Irene Turienzo, besteak beste.

Eskerrik asko zuen zerbitzuagatik eta espero dugu gure artean urte askotan gelditzea!!

Bukatzeko, lan hau gauzatzen lagundu diguten pertsonari eskertu, bai bere oroitzenengatik baita bere argazki zaharrenengatik ere.